

Berrigara



SAN KRISTOBAL

Aldaiegia auzoko jaiak asteburuan

Ekainaren 25eko zozketa:
24.000 pezetako 3 erosketa-bono

72.000pta

Sarituak:

Nekane Lizarraga

Rosi Moreno

Ainhoa Lete

Zorionak denoi!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Tomas Gezalaza

**Era guztietako
pintaketak**

Fatxaden garbiketak

Kalegoi 21
Tf. eta faxa
943 76 64 07
Poltsikokoa
616 277 999
ANTZUOLA
BERGARA

**Ondo pasau
Antzuolako
jaixetan!**



Profesionalak zuen zerbitzura



Segurtasuna salgai

Joxe Lazkano

Zalantzan nabil, ez dakit zein automobil erosi; lagun batzuek hauek gomendatu dizkirate: Fiat Punto, Alfa 147a, Skoda Octavia, BMW Z8, Renault Clio 2.0 16v, Citroën C5 2.2 HDI 16V, Seat Toledo 2.3 V5, Audi A6 2.4 Quattro eta Golf 2.8 V6 4 Motion.

Buelta dezente eman ostean eta koxe bakoitzaren alde on eta txarrak kontuan hartu arren ez dakit zer egin.

Beste lagun batzuegana jo dut aholku eske: VW California, Chrysler Voyager 3.3, Renault Grand Espace, Mitsubishi Space Star, Fiat Doblo, Audi A2 TDI, Mitsubishi Montero Kask, Toyota Ravh 2.0, Audi Allroad Quattro 2.7, Suzuki Samurai, BMW K5 eta Skoda Felicia Fun dira aukeran eman dizkirate-nak. Baina, benetan, oraindik ere ez dakit zer egin.

Dirua ez da arazua, garestienak ia

9.000.000 pezeta balio du, baina sobran daukat dirua.

Abiadura ez da arazoa, baimendutako 120tik gora hartzen dute denek, eta bada 234ra iristen denik ere, ia-ia Abiadura Handiko Trenaren pare!

Zein da ba orduan arazoa?

Auto saltzaileek azken urteotan abiadura ondo saldu ondoren, segurtasuna saldu nahi digute; ez da harrizkoa, abiadura horiekin istripu gehienak hilgarriak dira eta.

Istripuetan hildakoen eta larri zauritutakoen estatistiken zenbaki hotzak alde batera lagata, zenbakiak baino ez dira eta, segurtasun osoa emango didan autoa da arazoa, bilatu eta bilatu arren, topatzen ez dudalako. Ez dagoe-lako.

Elkarriri beste bake konferentzia bat eskatu beharko diogu lehenbailehen!

¿Te gusta conducir?<

«Auto saltzaileek azken urteotan abiadura ondo saldu ondoren, segurtasuna saldu nahi digute; abiadura horiekin istripu gehienak hilgarriak dira eta»

barruan



M. Pilar Garitano

Aldaiegiako auzotarra

«San Kristobal jaiak, lehen, gizakume solteroek prestatzen zituzten»

6.



Fernando Moreno

Lasai-Tokiko lehen presidentea

«25 urte hauetan aldatu egin da elkarteak; lehen jende asko etortzen zen astegunetan»

19.



Asier Garitano

Futbol jokalaria

«Futbolarion bizimodua oso ona da. Futboleak jarraitu nahi nuke erretiratutakoan»

16.

AGENDA ETA ZERBITZUAK

hi, gazte!



BEKAK

Praktikak. Eusko Jaurlaritza. Enpresa zientzietako lizentziadunak. Euskadiko eta atzerriko enpresa esportatzaileetan praktikak egiteko 30 beka. Epea: uztailak 14.
Garraioa. Unibertsitateko graduatuendako bederatzik beka, garraio analisiak egiteko. Epea: Uztailak 19.
Itsasoa. Ingurune horren gaineko garraio azterketak egiteko lau beka. Epea: Uztailak 12.

JARDUERAK

Etnikoa. Pirineos Sur Kulturen Nazioarteko Jaialdia, Huescan. Uztailaren 19tik 28a arte.

IKASTAROK

Familia-hezitzaileko urrutiko ikastaroa. Asetil (Kaleko Heziketa). Epea: irailak 18
Gurutzegorria. Prestakuntza-jardunaldiak. Aukera askeko kredituak hartzeko aukera. Epea: abendua.

SARIAK

Donostiako Zinemaldiko zuzendari berrien saria. Donostiako Nazioarteko Zinemaldia. Epea: uztailak 31.
"Control-Arte". Drogen kontsumoak dakartzan arazoekin zerikusia duten lanak. Epea: uztailak 16.
Sorkuntza. Red Bull-eko ontzi metalikoak erabiltza egindako sormen lanak. Epea: irailak 10.

LANA

Zestoa. Zerbitzu ordokorretako arduradun lanpostua betetzeko oposizioa. Epea: uztailak 16.
Hiru industria ingeniari tekniko. Nafarroako Foru Komunitatea. Epea: uztailak 18.
Zerbitzu askotariko enplegatua. Garraialako Udala. Eskola-ziurtagiria. B-1 gidabaimena. Epea: uztailak 18.
Bederatzik musika irakasle. Erriberriko Udala. Epea: uztailak 18.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57.
 E-mail: gzerbitzu@euskalnet.net
 Uztailako ordutegia:
 Osteguna: 08:30-13:30 eta 16:00-20:00.
 Ostirala: 08:30-13:30.
 Abuztuko ordutegia (bi asteetan itxita):
 Osteguna eta ostirala: 08:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizuke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketaren eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



Kurruxkia

Txarri-kurruxkia ere bai.

Kurrinka, txerriaren hots zorrotza. Hots lasaia denean, *kurrunka*.

hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Ekainak 28, eguena	28 °C	9 °C	- l/m ²
Ekainak 29, egubakoitza	32 °C	8 °C	- l/m ²
Ekainak 30, zapatua	22 °C	13 °C	- l/m ²
Uztailak 1, domeka	28 °C	12 °C	- l/m ²
Uztailak 2, astelehena	33 °C	11 °C	- l/m ²
Uztailak 3, martitzena	25 °C	13 °C	1,1 l/m ²
Uztailak 4, eguaztena	17 °C	16 °C	4,0 l/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:15.

Sierbak

Lanegunak: 19:30.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:30.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUBAKOITZA 6:
 MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
 ZAPATUA 7:
 CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
 DOMEKA 8:
 CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
 ASTELEHENA 9:
 PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
 MARTITZENA 10:
 GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
 EGUAZTENA 11:
 ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
 EGUENA 12:
 MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

OGIA

DOMEKA 8. Mizpildi

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK
 Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
 Bergarako udaltzaingoa. 943 77 91 06
 Antzuolako udaltzaingoa. 943 76 62 46
 Ertzaintza. 943 76 53 40
 Osasun Etxea 943 76 24 40
 Asepeyo 943 76 16 43
 Pakea 943 76 13 49
 Angiozarko medikua 943 78 90 27
 Antzuolako medikua 943 76 62 23
 Odol emaleak 943 76 16 24
 Alkoholiko anonimoak. 943 76 51 06
 GARRAIOAK
 Taxiak 943 76 19 50
 UDALA
 Bergarako udaletxea 943 77 91 00
 Antzuolako udaletxea 943 76 62 46
 Udal Artxiboa 943 77 91 32
 Igerilekuak. 943 76 20 51
 Kultur Etxea. 943 77 91 58
 Liburutegia 943 77 91 62
 Kirolegia 943 76 56 41
 Mizprialde Egoitza. 943 76 13 68
 BESTELAKOAK
 Epaitegia. 943 76 14 92
 Erregistroa. 943 76 13 15
 Jardun. 943 76 36 61
 Idolaz. 943 76 65 08
 Jubilatuen Etxea. Bergara. 943 76 21 40
 Antzuolako jubilatuen elk. 943 76 62 71
 Postetxea 943 76 26 85
 Bedelkar 943 76 04 68
 Akulu AEK. 943 76 05 18
 Udal euskaltegia. 943 76 44 53
 Bergarako notaritza. 943 76 10 73

oharrak

■ **1971an jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoen afaria** uztailaren 14an Angiozarko Ortzi jatetxean, 21:30ean. Izena ematea (3.000 pezeta) uztailaren 10era arte zabalik Simon Arrietako Kutxako bulegoan.

■ **Odol ateraldia** eguaztenezan, uztailak 11, Seminarioko lokalean, 18:30ean. Odol emale berriak behar dira.

■ **Udal Liburutegiak uztailleko ordutegiari ekin zion** astelehenean, uztailak 2. Astelehenetik egubakoitzera 8:00etatik 13:30era izango da zabalik liburutegia eta astelehen eta eguenetan goiz eta arratsaldean (16:00etatik 20:00etara).

■ **Xabier Arregi "Txapi" preso ohiaren fidantza ordaintzeko kontu bat** ireki dute Euskadiko Kutxan: 3035 0009 16 0090061013. Horretaz gain, Arrano, Kortazar eta Pol-Pol tabernetan 1.000 eta 5.000 pezetako bono-laguntzak daude salgai.

zorionak!



Ander Telleria
12an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Itsaso Mujika
9an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Rosario Baquerin
9an 63 urte.
Urte askotarako!
Alaba, suhia eta bilobak.



Eneko Zabaleta
8an 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta arreba.



Miren Urtaza
8an 8 urte.
Urte askotarako!
Amama eta izebak.



Jesus Matilla
6an 32 urte.
Urte askotarako!
Emaztea.



Unai Lizarralde
10ean 3 urte. Urte askotarako!
Judith, aitona-amonak eta gurasoak.



Jurgi Zuazo
7an 7 urte.
Urte askotarako!
Ama, aita eta Aratz.



Maider San Torcuato
12an 5 urte. Urte askotarako!
Amaia, amatxo eta aitabak.



Jon Ander Roman
7an 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Naiara.




Alberto Bolaños
11n urtebetetzea.
Urte askotarako!
Leire, Eztizen, Iranzu eta emaztea.



Asier Lakuntza
8an 4 urte.
Urte askotarako!
Antzuolako eta Bergarako familiak.

*Hurrengo alean,
uztailaren 13tik 19ra
bitarteko zorion agurrak
argitaratuko ditugu.*

jardunen agenda



■ **Begirale lan-poltsa:** astebukaeretan 8-11 urteko gaztetxoekin lan egiteko begirale lan-poltsa osatu nahi da. Interesatuok bidali kurrikuluma Jardunera edo ondorengo telefonora deitu 943 76 36 61.

■ **Koadrillategi egitasmorako dinamizatzaileak:** baldintzak: 20 urte beteta izatea, Bergaran edo inguruan bizitzea, euskara menperatzea. Pedagogia, Gizarte Hezkuntza, Soziologia edo Magisteritza ikasketak egiten bazabiltza edota gazteekin aisialdian lan egitea nahi baduzu, bidali Curriculuma Jardunera: Jardun Elkarte, Juan Irazabal z/g (Kartzela Zaharra) 20570 Bergara. Informazioa: 943 76 08 19 eta 943 76 36 61.

- 🔧 Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- 🔧 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- 🔧 Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63



ARRANO

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behe
943 76 21 80 / 943 76 06 37

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

GOXO-TOKI
Iraila 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

Datorren egubakoitzean hasi eta martitzenera arte, San Kristobal jaiak ospatuko dituzte Aldaiegia auzoan. Maria Pilar Garitano auzokoa dugu; Eduegi baserrikoa. Adeitsu hartu gaitu etxean eta San Kristobal jaien inguruko hainbat gauza kontatu digu. Gazteago zenean jaiak nola ospatzen zituzten, batez ere.

G. Gaur eguaztena bada ere, egubakoitzean jaiak hasiko direnez, guztia prest egongo dela imaginatzen dut.

E. Bai, nik ere hala uste dut. Izan ere, gazteek prestatzen dituzte jaiak. Guk, eliza garbitu dugu. Urtean auzoko bat arduratzen da eliza garbitzeaz eta janzteaz, eta niri tokatu izan zaidanean, ba horixe egin dut.

G. Alde handia ikusten duzu lehenago eta gaur egungo jaien artean?

E. Lehenagoak oso politak ziren eta oraingoak ere bai. Lehenagokoak guretzat oso politak izaten ziren. Lehen ezberdina zen. San Kristobal bezperan pinua jartzen zuten. Horretarako gazte koadrilak elkartzen ziren, baina gizakumeak bakarrik. Neskek ez zuten parte hartzen horretan. Gaur egun, neska eta mutil, auzoko gazteek elkarrekin jartzen dute pinua; eta horren gazteak ez diren batzuek ere bai.

Lehenago, gainera, mutil solteroek jartzen zuten pinua, ezkonduak ez. Eta oro har, jaiak ere eurek prestatzen zituzten, mutil solteroek.

San Kristobal eguna, oso jai polita izaten zen guretzat. Egia esan, orduan inora asko ere ez ginen joaten eta...

San Kristobal goizean,

MARIA PILAR GARITANO
Aldaiegia auzotarra

«San Kristobal jaiak, lehen, gizakume solteroek prestatzen zituzten»



Maria Pilar Garitanok oso gogoan ditu lehenagoko San Kristobal jaiak.

lehenago meza zortzietan izaten zen, bazkaria prestatu behar izaten zutenentzat eta. Gero, hamaiketara, meza nagusia izaten zen, eta hortxe egiten zen kotxe bedeinkazioa. Zortzietakoan ez.

Gauean erromeria izaten zen, eta jende ugari etortzen zen. Bergarakoak, mondragoetarrak... Jende asko. San

«Lehen letanian joaten ginen meza nagusira. Beitzibarren hasi eta elizaraino, txistulariak aurrean zirela eta etxafuegoekin»

Kristobal hurrengo egunean, auzoan hildakoen aldeko meza egoten zen. Eta hurrengo domekan jaien errepikapena egiten genuen. Orduan ere, gauean erromeria izaten zen. Garai hartan ez zuten berandura arte ibiltzen uzten, Guardia Zibila etortzen zen. Horregatik, Beitzibarrera joaten ginen. Han taberna zegoen, eta erromeria hango atarian jarraitzen genuen.

G. Kotxe bedeinkapena beti ezagutu duzu?

E. Bai. Kotxe bakar batzuk baziren. Dena dela, kamioiak bedeinkatzen zituzten, batez ere. Kamioilariak jai izaten zuten orduan, eta asko etortzen ziren, bai mezatara baita meza ondorenean ere. Don Jose Mariak banan-banan bedeinkatzen zituen. Gaur egun plazatik guztiak batera.

G. Bada denborarekin galdu den zerbait?

E. Letania. San Kristobal goizean meza nagusira letanian joaten ginen. Beitzibarren hasi eta txistulariekin San Kristobalera mezara joaten ginen. Aurrean, etxafuegoak jaurtitzen maiordomo tokatu zitzaiona joaten zen. Guretako oso polita izaten zen hori.

G. San Kristobalen historia jakingo duzu.

E. San Kristobal gizon handia zen, eta jendea sordaldan hartuta ibai bat alde batetik bestera igarotzen ibiltzen zen. Behin, ume batek, ea pasatuko zuen galdetu zion eta San Kristobalek baietz erantzun zion. Ibaiaren erdian zihola, pisua handitu egin zela nabaritu zuen. Umeari begiratu, eta honek Jesukristo zela esan zion. Gorputzez txikia izan arren pisu handia zuela.

Nik beti horrelaxe entzun dut, behintzat. 'Llevando al Cristo, Cristobal'.

EAJ/EAk ur zerbitzua pribatizatu nahi du, Enpresa komitearen ustez

Victoriano Gallastegi alkateak esan du batzordea oker dabilela

Eguazten goizean, udal-letxearen aurrealdean, udaleko Enpresa batzordeak salatu egin zuen Udaleko gobernu taldeak pribatizazioaren gainean duen politika. Batzordeak azaldu zuen EAJ/EA koalizioak ur zerbitzua kudeaketa pribatura pasatu nahi duela. Victoriano Gallastegik, haserre, guztiz oker dabilzala esan du.

Zuzeneko informaziorik izan ez arren, udaleko gobernu taldeak ur zerbitzua pribatizatu nahi duela pentsarazi dieten datuak dituztela azaldu zuen Enpresa batzordeko presidente Inazio Azkarraga-Urizarrek eguaztenean. Batzordeak zerbitzu publikoen pribatizazioaren aurrean duen jarrera guztiz aurkakoa da. Eta hori salatu zuten eguazten goizean egindako kale bilkuran.

Enpresa batzordearen arabera, zerbitzuen pribatizazioen kasu bat baino gehiago dago herrian: kale garbitasuna, fatxaden garbitasuna eta etxez etxeko laguntza, besteak beste. Eta, kasu horietan, emandako zerbitzua eta, are gutxiago, lan baldintzak egokienak direnik ezin daitekeela esan deritzote.

Batzordeko kideen ustez, pribatizazioaren alde daudenek erabiltzen dituzten argudioak -hau da, zerbitzuaren kalitatea hobetu egingo dela eta aurrezteko



Udaleko Enpresa batzordea eguaztenean udal-letxe aurrean egindako protestaldian.

balioko duela- okerrak dira. Batzordeko kideek esan dute pribatizazioak ez duela kostua txikitzen, eta are gutxiago prestazioak hobetu. Kudeaketa pribatua epe ertainera garestiagoa da, kalitate txarragoa izaten du eta inbertitutako diru publikoa ia ez da kontrolatzen. Bestalde, langileengan eragin zuzena du: soldata baxuak, kontratuen legez kanpoko erabilpena, enplegu publikoa galdu...

Hori guztia ikusita, batzordeak kalitateko zerbitzu publikoaren aldeko apustua egiten du eta, besterik gabe, zerbitzua pribatizatu aurretik, zera planteatzen dute: instituzio barruan, beste ir-

tenbide batzuk topatzea eta aztertzea.

ALKATEAREN ERANTZUNA

Batzordeak adierazitakoaren aurrean, Victoriano Gallastegik esan du guztiz oker dabilzala. Azaldu duenez, duela urte batzuk Gipuzkoako Ur Partzuergoak (68 herrik osatua) Ur Zerbitzuak enpresa sortu zuen, herriko ur zerbitzuen kudeaketaz arduratzeko. Izaera mistoa zuen, hau da, neurri handi batean publikoa zen, baina zati pribatua ere bazuen. Hala ere, helburua Ur Partzuergoan integratu eta guztiz publiko bihurtzea zen. Dagoeneko hori gauzatu da Victorianoren esane-

tan. Horrela, udalaren asmoa da Bergarako ur zerbitzua Ur Zerbitzuak enpresan sartzea 2002. urte hasierarako, Gipuzkoako beste 23 herrik egin duten moduan. Horrek onurak ekarriko lituzke alkatearen ustez, herri horietako ur zerbitzuen kudeaketa batera egingo litzatekeelako, eta-kostuak murriztu.

Udaleko ur zerbitzuko lanpostuei dagokienez, Ur Zerbitzuak enpresara pasatuko lirateke langileak, baina nahi izanez gero, udal langile estatusari eutsita. Gainera, herriko ur zerbitzua Ur Partzuergoak kudeatuko balu, titulartasuna udalak izaten jarraituko luke, alkatearen ustez.

Bestalde, EHren iritzia jakiteko asmoz, Jesus Mari Garitanori kontsulta egiteko orduan (eguazteneko lehen orduan), ezeren berririk ez zuela aurreratu zuen.

Alkateak dio, Bergarako ur zerbitzua Ur Zerbitzuak enpresa publikoan sartu nahi duela udalak 2002rako

Lacor SAko langileak muga gabeko greban astelehenetik

Hitzarmen duinagoa eskatzen dute. ELA eta UGTko ordezkarien arabera, hiru batzar izan dituzte enpresako zuzendaritzarekin. Langileek aurkeztutako lehenengo idatziak 16 puntu zituen. Hainbat adostu dituzte, baina «langileendako garrantzitsuenak diren sei puntuak adostasunik egin ez, eta muga bako greba egitea erabaki dugu batzarrean».



Greban dauden langileak, txandaka, enpresa aurrean egoten dira.

ADOSTU GABEKO PUNTUAK

Hitzarmena bi urterako izatea nahi dute; urte bakoitzean 20 lanordu murriztea eta soldatan KPI gehi puntu bat igotzea; erreleuben kasuan, lehenengo urtean orduko 20 pezeta eta bigarrean 10eko plusa nahi dute; gai-

xoaldi-bajen kasuan, lehen hiru egunean %75 kobratu nahi dute, urteko lehenengo baja denean, eta ingresorik balego, %100. Ordu estren kasuan, Lan Harremenen Kontseiluak dioena aplikatu nahi dute.

Lacor-eko 86 langileetatik, 20 inguruk ez dute greba egin; lanean dihardute, eta sarrera-irteera orduetan, sindikatuen arabera, Ertzaintzari deitzen diote. Zuzendaritza negoziatzeko prest izan arte iraungo du grebak.

Birziklatze zerbitzu berezia dendetan eta ostalaritzan

Duela sei hilabete Debagoieneko Mankomunitateak kartoia aparte batzeko zerbitzu berezia abiarazi zuen merkataria eta enpresa txikiendako. Orain, ostalaritzan beira jasotzeko zerbitzu berezirik jar daitekeen aztertzen hasi dira. Bi kasuetan, hau da, kartoia zein beira batzeko orduan, erraztasunak eman nahi dizkiote jendeari. Hala, Mankomunitateak behar bezala egiazaturiko jendea eskualdeko denda eta ostalaritzako establezimenduetan ibiliko da. Helburua da bi zerbitzuen gainean informazioa batzea. Datu batzea Bergaran hasiko da datorren astetik aurrera.

Laurehun ume dabil udalekuetan

Hortxe dabilta, pozik, joan den astelehenetik ume piloak udaleku irekietan. Hiru eta hamalau urte bitarteko 400 neska-mutikok eman dute izena, aurtan. Guztiak hamarnako taldeetan banatuta daude, bakoitza begirale banarekin, eta 10:00etatik 13:00ak bitartean, jolastu, marraztu... denetariko ekintzak egiteko aukera izaten dute. Eguaztenez, esaterako, txikitxoak Espaloirako bidean harrapatu genituen txintxo txintxo sokari lotuta ez galtzeko.



Tonbola presoen alde San Martinetan

AABk tonbola antolatuko du San Martin jaietan, presoen alde dirua batzeko. Opariak lortu ahal izateko, herritar guztien laguntza eskatu dute. Opariok Pol-Pol eta Arrano tabernetan laga daitezke. Azken eguna: uztailearen 20a.

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12



BANKINTER

%3,5 etik aurrera lehen 6 hilabeteetan
Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

*Irekiera
komisioa:
%1.
35 urte
bitarteraino

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1. 943 76 02 57



Zapatuan jende ugari igo zen San Martzialera; letania errezatuz

San Martzial jendez gainezka



Zer litzateke San Martzial mama gorri barik?

Eguraldi aparta izan genuen San Martzial Egunean. Egia da beroa pasatu genuela, baina, tira, hori hobe da zaparradak baino. **Jendez lepo** izan ziren San Martzialgo zelaia, eta herritarrek gustuko dugun jaja dela argi geratu da aurtengoan ere. **Herri kiroletan inoiz baino jende gehiagok** parte hartu zuen. **Sokatarari** dagokionez, nesken zein mutilen kasuan, **hamabina taldek** parte hartu zuten. **Txingetan**, berri, **lau neskak eta hogeita zortzi mutilek**. Nesketan eskas samar, baina mutilek kopuruan, behintzat, errekorra hautsi zuten.



Oraindik bada bazkaria zelaian prestatzen duenik.



Maite Lazkano txapeldunak ohorezko aurrekua jaso zuen.

GASTON Y DANIELA



Inglesina®

bébé confort®

Kruz Gallastegi 3 **BERGARA** ☎ 943 76 07 37

Banatzaile ofiziala

Berrigara

459 zenbakia.
2001eko uztailaren 6a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate, Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkorobereizbar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Dihan Vega, Usua Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Maitane Arizabaleta, Juan Martin Elexpuru, Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara (San Kristobalen argazkia: Xabier Aranburu).

Tirada: 5.500 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriaritzako Kultura saila

atrebentzia ezpada

Seme-alabak herriko ero kanpoko udalekuetara eruaten dittuzu?



Gemma Idigoras

Ez. Behin be ez jat burutik pasau. Eta oin, honezkero, nagusixak die.



Agurne Kortabarría

Txikittan eruan izan dittugu. Batzuetan neuk bialtzen nittuan eta beste batzuetan eurak eskatzen zeben, lagunak juten zielako.



Karmele Lopez

Ez. Bakarra daukat eta oso txikixa da. Baiña haundi egitten danian, igual eruango dogu.



Angel Unamuno

Txikixak zienian eruaten giñuzen. Umiak hartu-emonia izateko ona dala uste dot.



Begoña Gainza

Ez dittu iñoiz eruan. Bolun bizi gara, eta zaintzen dittuan neskia gora eta behera ez ibiltzarren, ez dittugu eruaten.



Antonio Ramos

Eruan izan dittugu. Akordatzen naiz mutikua Orion ibilli zala eta neskatillia Camerosen.

tira biraka gorka ortega & jon alvarez



adituen esanetan

Biharamuneko pilula

Biharamuneko pilula agertu baino lehen, Yuzperen metodoa aplikatzen zen. Estatuan Neogynona izenarekin komertzializatuta dago eta goizez bi pilula eta gauetz beste bi hartzea gomendatzen da. Neogynonak estrogenoak eta progestagenoak dauzka, eta bigarren mailako efektuen artean goragaleak aipatu behar dira. Era berean, aurrera doan haurdunaldi batengan eragina izan dezake.

Koitoaren ondorengo kasuetarako ere biharamuneko pilula komertzializatu berri da. Egunean bi pilula hartzea nahikoa da, bi dositan. Horrek gestagenoak ditu bakarrik eta, Neogynonarekin konparatuz, ez du jasanetasunik eragiten, eta emakumea haurdun egotekotan ez du eraginik. Beste diferentzia bat prezioan datza: biharamuneko pilulari dagokionez, Norlevo eta Postinor markak komertzializatu dira, eta dosi bakoitzak 3.200 pezeta inguru balio du. Neogynonaren kasuan, 200 pezeta dosi bakoitzeko.



JOSE RAMON SERRANO

Ginekologoa

«Pilula beharrezko kasuetan erabili behar da: preserbatiboa apurtzen denean edo babesik gabeko erlazioetan»

mertzializatzeke daude. Ospitaletan eta RU-486 edo pilula abortiboa izenarekin ezagutzen dena erabiltzen dute adibidez. Hau lehen aipatutakoak baino georago har daiteke.

Bukatzeke, preserbatiboari buruz zera esango nuke: ondo erabiltzen bada metodo antikontzeptibo ona dela. Ez da komeni preserbatiborik gabe sarpina egitea, eta koitua bukatutakoan preserbatiboa osorik dagoen egiaztatu behar da.

Biharamuneko pilularen erabilerak ez du ohikoa izan behar, beharrezko kasuetan hartu behar da bakarrik: hau da, preserbatiboa apurtzen denean, babesik gabeko erlazioetan edota bortxaketa kasuetan. Oso eraginkorra da, eta beti ere koitoaren ondorengo 24-48 ordu bitartean hartu behar da. 48-72 ordu igaro badira, koitoaren ondorengo kontrazepzio aukerarik onena DIUa sartzea da.

Gaur egun dosi bakarrek beste alternatiba batzuk ikertzen ari dira, baina oraindik komertzializatzeke daude.

bergarako zuhaitzak



Bi urki Irizar jauregiko parkean.

Urkia

Betula pendula

Hosto erorkorreko zuhaitz honek, gaztetan azala leuna eta gorrixka izan arren, gerora zurixka izaten du. Hostoak triangeluarrak dira, eta aurrealdean kolore distiratsua dute atzealdean baino. Udaberrian loratzen da, eta fruituak, udan eta udazken hasieran heltzen dira.

Leku hezeak eta erriberak nahiago dituen arren, herrietako parke, kale eta lorategietan asko landatzen den zuhaitza da; Bergaran adibidez, Usondon, Irizar Jauregian, Ozaetan eta Kruz Galastegin ikus ditzakegu.

Herrialde batzutan, urkia jakituria- ren zuhaitz bezala ezagutzen zuten; urkiaren bigarren azala pergaminoak egiteko erabiltzen baitzuten, eta neska- mutikoez ikasgaia ikasten ez zutenean urkiaren adarrekin egindako makilekin jotzen baitzituzten. Gipuzkoan, mugari bezala urkia landatzen zuten.

Hostoak irten aurretik, martxo edo apirillean, urkiaren enborretik zauri batzuen bitartez ateratzen den izerdia giltzurrun eta puxikako hantura edo inflamazioei aurre egiteko erabiltzen da. Bestalde, izerdia hartitzen edo fermentatzen utziz gero, Europako iparraldean asko estimatzen duten garagardo edo ardo gozoa egiten da. Hostoak, aldiz, beren ezaugarri diuretikoen erabiltzen dira.

Urkiaren egurra ia zuria da eta tani- noak ditu; eta garai batean, larrua zurratzeko erabiltzen zen. Gaur egun, egurra biguna eta iraupen gutxikoa denez; papergintzan, ikazkintzan eta ebanisterian erabiltzen da.



Emakumeak koitoaren ondorengo 24-48 ordu bitartean hartu behar du biharamuneko pilula.

Testua: Maitane Arizabaleta.



Dantzariak Santimamiñen

Moises Aspiazu dantza taldekoek, urtero moduan, kurtso amaierako irteera egin zuten ekainaren 27an. Aurten **Santimamiñeko kobak** ikustera joan dira, eta **Basondon** ere egon ziren, animaliak ikusten. Gero, **Lagako hondartzara** joan ziren. Egun konpletoa, bai horixe!



Zorrotzailea Bergaran

Batek baino gehiagok ikusiko, edo entzungo, zenuten oraingo astean zorrotzailea. Eta batek baino gehiagok aprobetxatuko zuen, seguruenen, aukera hori etxeko labanak edo guraizeak zorrotzeko. **Galiziarra** da zorrotzailea, eta **60 urte daramatza lan horretan**. Guk Egino Mallea plazan ikusi dugu, honako argazkian ikus daitekeen moduan.


Goi mailako heziketa zikloetarako MATRIKULA EPEA LUZATU EGIN DA uztailaren 2tik 11ra

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK:

- Gizarte integraziorako goi teknikaria
- Haur hezkuntzako goi teknikaria

Irteerak:

- Unibertsitateko ikasketak
- Lan arloan murgildu



Mariaren
Lagundia
Ikastola

Espoloia, 1
943 76 25 40 / 41
Faxa: 943 76 33 31
marilagikastola@euskalnet.net
Bulego ordutegia:
09:00etatik 13:00etara

kontuola...

82 zenbakia.
BEREZIA
2001eko uztailaren 6a



ANTZUOLAKO JAIKAK 2001

UZTAILAREN 12tik 15era



EUSKARA PAPARREAN

Idolaz euskara elkarteak urtero antolatzen du pegatina lehiaketa. Aurten lau proposamen besterik ez dituzte aurkeztu, eta Alaitz Jauregirena aukeratu dute Idolazeko kideek. Goian, pegatinar bertan, ikus daitekeen moduan, honako leloa aukeratu dute: "Danok danokin ein ezkerero, euskaria galtzia ez espero".

JUBILATUEN BAZKARIA

Urtero-urtero egiten dute bazkaria Antzuolako jubilatuek. Duela lau bat urtera arte ekainean egiteko ohitura zuten, baina, jaiekin bat egitearren, uztailera pasatzea erabaki zuten. Horrela, duela urte batzuk, jaien aurreko asteburuan egiten hasi ziren, eta halaxe egingo dute aurten ere.

Antzuolako 150 bat erretiratu elkartuko dira domekako bazkarian, eta, ohi bezala, jubilatuen elkartean izango da. Honako menua izango dute: sarrerakokak, barazki menestra, txahal biribilkia, tarta izozkiarekin eta kafea.

Bazkalostean, berriz, dantzarako aukera ere izango dute jubilatuek, Gezalaga anai-arreben trikiti doinuekin. Bazkalostean baita ere, omenaldia egingo diete Maria Jesus Aseginolaza eta Jose Maria Aranbururi, eta plaka oroigarri bana emango diete. Maria Jesusek 91 urte ditu, eta Jose Marik 92.



TXIRRINDULARI LASTERKETA

Afizionatu mailako Antzuola saria lasterketa domeka goizean jokatu dute. Aurten 56. aldía izango da, eta Iñaki Leteren oroimenez jokatu da bederatzigarren aldiz. 9:30ean aterako dira txirrindulariak plazatik, eta plazan bertan bukatuko da, 12:30 aldera. 125 bat kilometro egin beharko dituzte, eta bi mendate izango dituzte tartean, Deskar-gakoa eta Asentziokoa. Lehendakari txapelketarako puntuagarria izango da Antzuolako lasterketa, eta 19 eta 20 urteko 200 bat txirrindularik parte hartuko du. Bestalde, egun horretan plazan ez apartatzea eskatu dute antolatzaileek.

kontuola...

82 zenbakia. BEREZIA. 2001eko uztailaren 6a.

IDOLAZ elkarte, Antzuola
Telefona:
943 76 03 97
Azaleko argazkia:
Kontuola

Erredakzio kontseilua:
Miren Anduaga
Gotzon Iparragirre
Patxi Kortabarría
Jone Larrañaga

Kazetaria:
Aintzane Irizar
Testuen zuzenketak:
Sergio Azkarate
Gari Bragado

HARATEGIAK



Komenio kalea, 2. Bergara
943 76 10 72



Kalebarren, 1. Antzuola
943 76 64 84

*Fai zoriontsuak
opa dizkizuegu bezero guztioi eta
mila esker eman diguzuen konfiantzagatik!*



AITZ-GARBI taberna-jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak. Bazkariak eta afariak

Tf. 943 78 70 51

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA 609 157 131

BERGARA 609 150 164

KARMEN IRIZAR, PRESOA

«ETXANIZ KALEAN IKUSI NAHI NUEN KARTZELARATU AURRETIK»

Jaiak iristear ditugu, eta jai girorako gosez gaude gehienok. Antzuolar guztiek, baina, ezingo dute jaietz gozatu. Karmen Irizar, esaterako, kartzelaratu berri dute. Uztailaren 2an espetxeratu zuten. Kontuolarako elkarrizketa hau egin nahi izan genion Martutenerako biga hartu aurretik.

Elkarrizketa hau Martutenen irakurriko duzu.

Bai, uztailaren 6an ateratzen baldin bada, bai. Gaur zortzi dagoeneko Martutenen egongo naiz, beraz, hantxe irakurri beharko dut.

Etorkizuna zela ikusten duzu?

Kalean egon naizen bitartean, nahiko ondo pasatu dut, azkenaldian, batez ere, sorpresa zoragarriak izan ditugu: Etxeberen irteera, Etxanizena, eta orain, Txapirena. Gainera, kartzelaratzeko data neuk jartzeko aukera lortu nuen, eta Etxaniz kalean ikusi arte ez nuen kartzelaratzetik nahi, eta hori ere lortu dut. Etorkizunari dagokionez, bada, ikusi egin behar. Orain Martutenen aurkeztuko naiz, baina sakabanaketa hor dago, eta oso mentalizatuta noa. Lau urte eta zortzi hilabeteko zigorra daukat aurrean. Animatuta nago, baina hori bai, esan be-



Karmen joan zen astean, bere etxean.

gala, mentalizatuta nago. Gainera, zenbat eta lehenago iritsi datorren uztailaren 2a, orduan eta hobe.

Epaiketara arte hiru urte itxaron duzue. Orain, kartzelaratzeko dataren zain zaude. Zela bizi izan dituzu egoera horietan?

Epaiketari zain egoteak asko erretzen zaitu. Gero, kalean egonda ere, mu-

gak dauzkazu: inora ezin zara joan, 15 egunetik epaitegira joan behar duzu, etengabe kontrolpean zaude, eta gero, epaiketa ostean ere kartzelaratu arte zain egon behar. Horrek guztiak asko erretzen du pertsona. Horregatik esaten nuen, zenbat eta lehenago iritsi eguna, hobeto. Dena dela, lehenago edo beranduago pasatu egin behar zen.

Egoera hau, berez, gogorra da. Baina, zuri zer egiten zaizu gogorrena?

Dena da gogorra. Atxiloketako momentua eta, inkomunikatuta zaudenean, komisariako bost egunak oso gogorrak dira, torturak daudelako. Gero, espetxeratzea ere oso gogorra da. Lehen esan bezala, zain egotea ere ez da gozoa. Eta, oraingo egoera ere, maletak egin eta espetxera joan beharra, gogorra da.

Jaietan, zer esango zenieke antzuolarrei?

Fisikoki ez naizela egongo, baina antzuolar bezala, herriarekin nagoela. Bestalde, uste dudala ez naizela sekula bakarrik sentituko, ikusita orain arte ere zenbat laguntza jaso dudan herritarrengandik. Eta jaietan ondo pasatzeko, baina dena ez dela jai, hau da, "jaiak bai, borroka ere bai"; betikoa, hemen jarraitu egin behar da.



INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa: 943 76 60 19



Carpinteria
GARITANO
Aroztegia

Era guztietako
arotz lanak

Ondarre, 9. ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 45

GAILUR

taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32



Juan Cruz



Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Argazkiak

Bitxitegia
Marrokineria
Erojuak

Herriko plaza 4, ANTZUOLA. Tf. 943 78 70 66

Jai zorientsuak izan ditzazuela!



DESKARGA
AUTOAK

Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tf. 943 76 62 75

LEKU-BERRI
MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94

10:30

UMEENDAKO JOLASAK udaleku irekietako begiraleekin.

13:30

Umeen herri BAZKARIA.

16:30

ELBI BENTRILOKOA.

18:00

TXUPINAZOA ETA KANPAIAK, jaien hasiera iragartzeko. TXISTULARIEN kalejira eta BURUHANDIAK.

19:30

SALBEA. Antzuolako abesbatzak Alfonso Ugarteren salbea kantatuko du.

20:15

IKURRIN DANTZA Oinarineko umeekin. UDALBATZAREN AURRESKUA, Oinarinek lagunduta. ANTZUOLAKO BANDERA eta ikurriña jasotzea.

22:30

ERROMERIA Muganix taldearekin plazan.

00:00

SUZKO ZEZENA plazan.

00:30

DANTZALDIA Muganix taldearekin.



Eguerdiko 13:30ean izango dute bazkaria plazan.

UMEEN EGUNA, JAIEN HASIERA

Umeak izan ohi dira jaietako lehen-dabiziko eguneko protagonistak Antzuolan. Aurten ere, umeen egunarekin emango zaie hasiera jaietara.

Udaleku irekietan ibili diren 90 umeek goizean ekingo diete eguneko ekitaldiei. Uztailaren 2tik 12ra arituko dira umeok udaleku irekietan, eta egue-nean, hainbat ekitaldirekin emango zaie amaiera udalekuei, eta jaietara, hasiera.

Goizeko 10:30ean jolasak izango dituzte. Lehendabizi, talde bakoitzak, zortzi talde guztira, play-back saioa egin beharko du. Dagoeneko ikuskizun horretarako entseguekin dihardute ume eta begiraleek. Bakoitzak kantu bat aukeratu, eta abestu, dantza edo dena delakoa egin beharko dute.

Horren ondoren, eta urtero moduan, lehiaketa bat jokatu dute. Begiraleak umeen kontra lehiatuko dira. Talde bakoitzetik ume batek jokatu du,

eta aurrean izango dituzte begirale guztiak. Lehiaketa horretan, hainbat galderari erantzun beharko diete: Antzuolari buruzko galderak, matematikak eta eskolako bestelako gaietara buruzkoak..., eta, bestetik, era guztietako frogak gainditu beharko dituzte.

Horrenbeste dantza, ikuskizun, lehiaketa eta jokoren ostean, gosetu ere egingo dira ume eta nagusi. Horrela, eguerdiko 13:30ean umeen herri bazkaria egongo da plazan.

Menua, betiko antzerakoa izango da, ume guztien gustokoa, seguru: makarroiak lehenengo, eta oilaskoa ondoren. Urtero moduan, gurasoak arduratuko dira bazkaria prestatzeaz.

Arratsaldean, berriz, umeendako ikuskizun aparta izango da: Elbi bentrilokua, hain zuzen ere. Antzuolako plaza etorriko zaigu, bere panpin eta guzti. Nahikoa barre egiteko aukera eskainiko digu, beraz, Elbik eguen arratsaldean.

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

**Jaixetan...
Ondo pasau!**

TXOMIN GARAJEA

ad

Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

Lizarraga auzoa. Antzuola. Tf. 943 78 70 77

ALFONSO UGARTEREN SALBEA ABESBATZAREN ESKUTIK

Aspaldiko partez, Alfonso Ugarte antzuolar musikari eta konposatzailearen salbea abestuko du abesbatzak jaietako lehenengo egunean. Urteroko ohitura da jaietako egunean salbea kantatzea, baina azkenengo urtetan ez dute Ugarterena abestu. Egunean, arratsaldeko 19:30ean izango da abesbatzaren emanaldia, Antzuolako parrokiari. Patxi Azkarate izango da zuzendaria, eta Patxi Olabarria, berriz, organu jotzailea.

Ohitura hori berreskuratzeko, alde batetik, eta Alfonso Ugarte ezagutzera emateko, bestetik, erabaki dute Ugarteren salbea kantatzea. Izan ere, Antzuolako semea, musikari eta konposatzaile oparoa izan zen arren, herritar askok ez dute bere berri.

UMETATIK MUSIKARI

Duela 122 urte, 1879. urtean hain zuzen ere, jaio zen Alfonso Ugarte Antzuolan. Eta 1937an hil zen Lizarran, ezusteko infartu baten ondorioz.

Bere osaba bat organu jotzailea zen Zumarragako parrokiari, eta Alfonsok han abesten zuen, triple bezala.

Hamar urte zituela hasi zen musika ikasten, bere osaba organu jotzailearekin. Gero, Bergarako Fernandez de Retarekin jarraitu zuen ikasten.

LIZARRARA BIZITZERA

Beranduago, Donostiako kontserbatoriora joan zen, eta piano eta armoniako ikasketak egin zituen. Hamazazpi urterekin aurkeztu zen lehen aldiz organu jotzaile oposaketetara. Ez zuen postu hori lortu. Handik gutxira, Lizarrako organu jotzaile postua eman zioten; hara joan zen bizitzera, eta hantxe bizi izan zen or-



Alfonso Ugarte antzuolar musikaria.

tertik. Karmen Bikuñarekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten.

1920an Lizarrako Udal Musika Banda sortu zuten, eta bera izendatu zu-

ten zuzendari. Gotzaitegiak antolatzen zituena musikari lehiaketetako epaimahaiako presidentea ere izan zen. Lizarrako bere etxean solfeo, piano eta organoko eskola partikularrak eskaintzen zituen. Eskolapioen eskolan ere irakaslea zen, eta kaputxinoetan organu jolea.

MUSIKARI ETA KONPOSATZAILEA

Organu jotzailea izanik, batez ere erlijio musika konposatu zuen, tartean, eta aipagarrienetako bat, egunean abestuko duten salbea dugu. Lizarran oso ezaguna eta maitatua da Ugarteren salbea.

Nafarroako Xabier Deunaren himnoa eta Puy Amabirjinarena ere berak konposatu zituen; oso bereziak dira nafarrentzat, eta lizarratarrentzat, bereziki. Datorren egunean, beraz, Antzuolako konpositore handi honen salbea entzuteko aukera izango dugu.



Urtero abesten du Antzuolako abesbatzak salbea, jaietako lehen egunean.

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23



Jose Luis
Zabalo

Ondo pasau
jaixak!

Birgaitzeak • Fatxadak • Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA Tf. 943 76 60 89

10:00

GOIZERESIA txistulari taldearekin.

10:55

TXUPINAZOA.

11:00etatik 14:00etara

Umeendako JOLAS PARKEA herriko plazan.

11:30

MEZA NAGUSIA.

12:30

BERTSOLARIAK Zurrategin: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso.

15:00etatik 18:00etara

Umeendako JOLAS PARKEA herriko plazan.

19:00

BERGARAKO BANDA TXIKIA.

22:30

DANTZALDIA Triki Ta Ke taldearekin.

23:00

KONTZERTUA Gaztetxeok antolatuta beheko auzoko kirol eremuan.



Goizez eta arratsaldez egongo da jolas parkea plazan.

PLAZA JOLASTOKI BIHURTUKO DUTE

Umeei galdetzen hasita, seguru asko, barrakak eta jolas parkea izango dira gehienendako jaietako jarduera politenak, baina aurten ere ez da barrakarik izango. Hala ere, jolaserako aukerarik ez da falta izango. Egubakoitzean, behintzat, badute aukera nahiko jolas egiteko; izan ere, goiz eta arratsalde izango da jolas parkea herriko plazan. Goizean, 11:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean, 15:00etatik 18:00etara.

Era guztietako jolasak izango dituzte hantxe: ohe elastikoak, giza mahai-futbola, gaztelu puzgarriak...

KIROLERAKO TXOKOAK ZAPATUAN

Zapatuan, berriz, gaztettoendako kirol txoko-zirkuituak izango dira plazan.

Hiru txoko egongo dira plazan, goizeko 11:00etatik aurrera: txoko baten gimkana egingo da, baina patinekin. Hori bai, nork bere patinak eraman behar du; trialsinerako ere beste txoko bat

jarriko dute. Alberto Gomez, munduko trialsin txapelduna izandakoa, hantxe izango da, umeei trialsina erakusten. Al bertok ekarriko ditu, gainera, trialsineko bizikletak; eta hirugarrena aerodantza txokoa izango da; aerobica eta dantza uztartzen dituen kirola da aerodantza.

BERGARAKO GAZTETXOEN BANDA

Umeen eguna, berez, eguenean izango den arren, egubakoitzean ere protagonismo berezia izango dute umeei; izan ere, goizean eta arratsaldean jolas parkean gozatzeko aukera izateaz gain, Bergarako gaztetxoek banda ere protagonista izango dugu arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Lehendabizi kalejira egingo dute, eta gero, plazan, hiruzpalau pieza eskainiko dituzte. Bergarako gazteen musika banda Musika Eskolako ikasleek osatzen dute. Guztira, 45 musikari ari dira banda horretan, horietatik, sei Antzuola-koak.



HIRU
AROSZTEGIA

Antigua auzoa 8 20577 ANTZUOLA Tf.: 943 76 63 59

ATEAK
LEHIOAK
ZORUAK

HORMA ARMAIRUAK

Ondo pasau jaixak!

TRIKI TA KE HERRIKO PLAZAN ETA ROCKA PLAZA GORRIAN

Era guztietako musika egongo da jailetan, eta baita egubakoitzean ere. Herriko plazan Triki ta Ke taldea arituko da gaueko 22:30etik aurrera. Beheko auzoko plazan, berriz, gaztetxeak antolatuta, rock kontzertua egongo da 23:00etan. Gustu guztietarako musika, beraz.


Duela sei bat urte sortu zuten Triki ta Ke taldea Iker eta Gurutze Dorronsoro anai-arrebek. Ordutik hona, baina, aldaketa ugari izan ditu, eta sendotu egin da Triki ta Ke. Aurten bertan eman dute argitara euren lehendabiziko diskoa, taldearen izen berarekin. Bost kidek osatzen dute gaur egun talde hau: Anabel Arraiza (ahots nagusia), Igor Telletxea (bateria, perkusioa eta teklatura), Iker Dorronsoro (trikitixa eta ahotsa), Imanol Goikoetxea (gitarra-akustikoa, elektrikoa eta ahotsa) eta Joseba San Sebastianek (baxua), hain zuzen ere.

Erromeriak dira euren berezitasuna, eta diskoan batu dituzten hamahiru abestiak ere halakoxeak dira, erromeria-rako abestiak. Kantu alai, bizi eta errimoz beteak dira gehientsuenak. Baina, tradizioan oinarritutako abesti melodikoak, lasaiak, ere eskaintzen dituzte.

GAZTETXEKOEK ERE KONTZERTUA ANTOLATU DUTE

Gaueko 23:00etan hasiko da kontzertua, eta Beheko auzoko plazan edo plaza gorrian izango da.

Flutter eta Fits taldeak arituko dira. Flutter taldea Lizarratik datorkigu. 80. hamarkada amaieran sortu zuten, eta hasiera hartan rock&rolla jorratzen zuten. Pixkanaka pixkanaka gero eta musika



Aurtengo martxoan kaleratu du Triki ta Ke taldeak bere lehen diskoa.

gogorragoa egiten hasi ziren; hardcore eta metaleruntz hurbiltzen hasi ziren. Orduan, Gasteizko Mil a gritos disko etxerekin topo egin zuten; disko etxe honek apustu handia egin zuen talde horrekin,



Flutter, Lizarrako taldea.

eta disko bat baino gehiago kaleratu zuten berarekin. Euren azken lana, *Rastafari mamao*, iaz kaleratu zuten Gor disko etxerekin. Disko honen berrikuntzarik nabarmenena abeslari aldaketa izan da; Iñakik taldea laga du, eta Miguel Leoz da taldeko abeslari berria. Euren disko guztietan, kritika soziala dute helburu. Drogen legalizazioa, sexua edota arrazakeria dira, besteak beste, Flutter-en abestietako gaiak.

Fits taldea, berriz, Zumarragatik datorkigu. Hauek musika lasaiagoa egiten dute. Marrubi sound izeneko taldetik sortu dute orain Fits.

Bi talde hauek gain, beste bat ere arituko da plaza gorrian, baina, oraindik ezin izan digute ze talde etorriko den baieztatu. Dena dela, kontzertu polita, duda barik, egubakoitzekoa.

SURPE
taberna

TRAGO BAT
hartzeko tokirik
APROPOSENA

Herriko plaza 2, ANTZUOLA
943 76 64 97

PINTXOAK
BOKATAK
KAZUELITAK

Kalebarren 17, ANTZUOLA
943 78 70 68

LARREA
TABERNA

GOIZEKO 7:30etik IREKITA!

Jaixetan ere Eltzikorta, Karmen eta EUSKAL PRESOEKIN BAT!

SALVADOR PEÑA, ALARDEKO MAIRUA

«BESTEEK BIDALI ARTE, NI MAIRU»

10:00

GOIZERESIA txistulari taldearekin.

10:55

TXUPINAZOA.

11:00

KIROL TXOKO-ZIRKUITOAK gaztetxoendako.

11:00

KALEJIRA Bergarako Musika Bandarekin.

12:30

KONTZERTUA Zurrategin, Bergarako Musika Bandarekin.

18:00

MAIRUAREN ALARDEA.

19:00

OINARIN taldearen dantza saioa.

22:30

DANTZALDIA Preludio orkestrarekin.

Nork ez du ezagutzen mairua? Urtero ikusten dugu alardean, asto gainean gora eta behera. Astotik jaitsi, kostata, baina kapitainaren aurrean erreberentzia eta ihes egiteko saiakera bat egin, eta barrura. Salvador Peña *mañua* da bera, eta 69 urte dauzka. Zaragozako herri batekoa da, Atecakoa, hain justu.

Noiz etorri zinen Antzuolara?

Lehenengo Bergarara etorri nintzen. Egia esan, Frantziarako txartela hartuta neukan; baina, trenean, Azpeitiara zetozen bi emakumerekin berba egiten hasi, eta hemen nahikoa lan zegoela esan zidaten. Hala, Bergaran gertzea erabaki nuen. Gero, urte batzuk beranduago, 1960 inguruan, Antzuolara etorri nintzen.

Eta noiztik mairuaren papera egiten alardean?


Aurtengoa 30. aldia izango dut. Mairuaren papera egiten zuena oso gaxorik jarri zen. Orduan, beste baten bila hasi ziren. Etxera deitu eta udaletxera joateko esan zidaten. Orduantxe esan zidaten, neuk egin behar nuela mairuarena, ausarta nintzela eta ondo egingo nuela. Eta halaxe hasi nintzen.

Entsegurik egiten duzue ala dagoeneko beharrik ere ez daukazue?

Nik, behintzat, ez dut entsegurik egiten. Ez dago beharrik. Kapitainak gogorarazten dit urtero zer egin behar duan: "nik deitzen zaitudanean astotik jaitsi; hiru galdera egingo dizkizut...". Dena azaltzen dit, gogorarazteko, eta kitto.

Zer sentitzen duzu alardean?

Zapatu goizean dagoeneko urduri samar egoten naiz; gero, udaletxetik



Mañua, herriko plazako elizpean.

atera eta jende mordoak ikusteak ere urduri egiten nau.

Urte hauetan aldatu da alardea?

Bai, duela lau zapabost urte aldaketa bat egin zuten. Lehen, mairuari turbantea lurrera bota eta zapaldu arazten zioten. Orain, berriz, ez dut horrelakorik egiten.

Anekdotaren bat gogoratuko duzu, ezta?

Bai; urte baten, Gaztelugainera joan nintzen bazkalostean lagunekin, eta txanpan gehiegixto edanda etorri nintzen. Astotik ere erori egiten nintzen. Gauean, emazteak sekulakoak esan zizkidan.

Noiz arte jarraituko duzu?

Bidaltzen nauten arte. Nik oso gustura egiten dut mairuarena, eta ez daukat lagatzeko asmorik.

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Billegia: 943 78 70 40



Z Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

MUSIKA BANDAREKIN HASI ETA PRELUDIOREKIN BUKATU

Zapatuan era guztietako musika eskaintza izango dugu. Goizean hasiko da eskaintza hori, Bergarako musika bandaren kalejirarekin, 11:00etan. Kalean gora eta behera ibili eta gero, Zurrategiko kioskoan kontzertua emango dute. Gauean, berriz, musika mota zeharo desberdina izango dugu, Preludio orkestrarekin, gaueko 22:30etik aurrera.

Ermutik datorkigu Preludio. Duela bederatzirte sortu zuten talde hau Dora de Miguelek eta Oscar Losadak. Preludio erromeria taldea da, baina ez du estilo jakinik. Askotariko musika egiten dute, eta edozeinek entzuteko moduko musika egiten saiatzen dira. Horrela, pasodobleak, rantxerak, trikitia edo rock musika eskaintzen dute; guztiak ere abesti ezagunen bertsiok dira.

Era guztietako musika eskaintzeaz gain, euren emankizunak ikuskizunak dira esanenez; izan ere, musika, dantza eta antzerkia uztartzen dituzte. Oscar Losada kideetako baten esanetan, «gu, batez ere, musikariak gara, baina aktore lanak ere egiten ditugu». Horrela, antzerkiaren eta ikuskizunaren birtartez jendearengana iritsi eta jendearen esku hartzea bilatzen dute. Taldeko kideetako bat, gainera, Dora de Miguel hain zuzen ere, musikaria izateaz gain, aktorea ere bada. Dora da taula gainean protagonista nagusia, ze aktore nagusia izateaz gainera, abeslaria ere ber baita.

Honako hauek osatzen dute Preludio: Oscar Losada (bateria eta ahotsa), Dora de Miguel (abeslaria), Mario Larriaga (teklatuak), Pedro Pablo (baxua eta ahotsa) eta Santiago (gitarra).



Musika baino zerbait gehiago eskainiko digu Preludiok zapatu gauean.

Hortaz, musika entzun, dantza egin eta ikuskizun berezi horretaz gozatzeko aukera izango da zapatuan, 22:30ean, herriko plazan.

BERGARAKO BANDAREN KONTZERTUKO EGITARUA

Rubores Pasodoblea
Markina

Tancredi Obertura
Rossini

Euskaros Suite
Torremuskiz

La boda de Luis Alonso Intermezzo
Jimenez

The last of Mohicans Soinu banda
Jones/Edelman

BERGARAKO BANDA KALEJIRAN ETA ZURRATEGIN

Goizeko 11:00etan kalejira egingo du Bergarako Udal Musika Bandak. Kalejira horretan *Sandie* kalejira joko dute. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren esanetan, «betidanik jo izan dugu *Sandie* kalejira Antzuolako jaietan, aspaldiko ohitura da». Eguerdiko 12:30ean, berriz, kontzertua emango dute Zurrategi plazako kioskoan. Kontzerturako egitarau zabalagoa prestatu dute, ezkerreko taulan ageri dena, hain zuzen ere. Aipatzekoa da, halaber, azkeneko piezan, *The last of Mohicans* piezan alegia, Oihana Jauregi antzuolarrak biolina joko duela.

Bergarako Banda urtero-urtero etortzen da Antzuolako jaietara, Alfredo Gonzalez zuzendariak adierazi duenez, betidanik.

GARITANO ALTZARIAK

ALTZARIAK: sukaldeak, egongelak, logelak, etxerako altzariak, osagarriak...

ERAKUSKETA: Ondarre, 9.
ANTZUOLA. Tel.: 943 76 62 45
Faxa: 943 78 71 16



OKINDEGIA
GOXOTEGIA
DAZTAKETA
KROISSANTEGIA

ONDO PASAU
JAI HAUTAN!

ALTZARTE

Kalebarren 18. 943 76 62 94

Jai zorionsuak izan!

Itzar

**LIBURUDENDA
ESTANKOA**

Kalebarren 1, ANTZUOLA
Tf. 943 76 60 62

12:30

KALEJIRA Incansables
txarangarekin Errekalden hasita.

12:30

DANTZA SAIOA:
Aiert Beobide, Euskadiko
auresku txapelduna eta
Arratiako trikitixa: Esther
Korta eta Aitor Zamaio.

14:30

HERRI BAZKARIA Amnistiaren
Aldeko Batzordeak antolatuta.

18:00

PILOTA PARTIDUAK.
Muruamend.-Eulate/Etxaniz-Jaio
Berraondo-Goñi/Xala-Elkoro

18:30

HORTZMUGA antzerki taldearekin
Rekolore ikuskizuna.

20:00

KALEJIRA Incansables
txarangarekin.

22:00

DANTZALDIA Bigira taldearekin.

00:00

INCANSABLES txarangaren saioa
Herriko plazan.

00:30

BIGIRA taldearekin erromeria.

02:00

INCANSABLES txarangarekin
JAIEN AMAIERA.Herri bazkariaren ostean, Hortzmuga taldeak *Rekolore* antzezlan eskainiko du.

KOLOREZ JANTZIKO DUTE BAZKALOSTEA

Arratsaldeko 18:30ean hasiko dute euren ikuskizuna Hortzmuga taldekoek. Bilbotik datorkigu antzerki talde hau, Zurbaranbarri auzotik, hain zuzen ere, eta *Rekolore* antzezlan ekarriko digute domeka arratsaldean herriko plazara.

1989. urtean sortu zuen taldea auzoko lagun talde batek. Euren esanetan, «ekimen sozio-kultural bat izan zen». Denborarekin, baina, proiektu sendo bat bilakatu dute Hortzmuga, eta hamar ikuskizun egin dituzte hamabi urte haue-tan. Domekan eskainiko digutena izan da euren azken lana. Izenburuak berak dioen bezala, kolorea da ikuskizun honen ezaugarri nagusia.

Kaleko antzerkia egiten dute, batez ere, eta horixe da *Rekolore* ere. Horrelaxe definitu dute euren azken lana Hortzmugakoek: «ikuskizun bisuala eta basatia da; banderen ikusgarritasuna, hankaluzeen bertigoa eta koloreen bizitasuna uztartzen dituen ikuskizuna da».

Hamabi lagunek parte hartzen dute ikuskizunean. Baina, publikoaren parte hartzea ere bilatzen dute. Izan ere, euren ikuskizun guztiak jendearen parte hartze aktiboa lortzeko pentsatuta daude, eta baita *Rekolore* ere.

Bestalde, Hortzmugaren lan guztiak bezala, era guztietako publikoari zuzenduta dago domekan eskainiko duten ikuskizuna. Euren lanak ez dira umeendako bakarrik, nahiz eta kale antzerkia umeekin lotzen duten askok.

Hortzmugakoen beste ezaugarri bat da, asko zaintzen dutela ikusgarritasuna, koloreen indarra, eta baita musika bera ere. Koloreari dagokionez, oraingo antzezlari honetan, batez ere, berebiziko garrantzia dauka, antzezlari eta kaleari berari bizitasuna ematen baitie. Dinamismo eta indar bisual handia dauka *Rekolore*-k. Plaza, beraz, kolorez jantziko da domeka arratsaldean.



Zorionak antzuolarrok!

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Ainhoa
drogeria

**ONDO PASAU
JAIXETAN!**

Kalebarren 13, ANTZUOLA

DOMEKAKO HERRI BAZKARIA, EZINBESTEKO HITZORDUA

Jaien amaiera gertu dagoenaren penaz, baina era berean, jaiei amaiera aproposa ematearen pozaz hartzen dugu gehienok domeka. Eta askorentzat, herri bazkaria ezinbesteko hitzordua izaten da urtero. Jaiei amaiera ezin hobea emateko aukera polita.

Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatatu du, ohi bezala, herri bazkaria. Duela lau bat urtetik antolatzen du erakunde horrek, eta jende mordo batzen da bazkarian. Aurten ere, beste urteetan antzera, 200 bat lagun espero dute bazkaritarako antolatzaileek. Eguraldi ona egiteak, noski, laguntzen du jendea gerturatu dadin, baina, euria eginda ere, ez dago arazorik, elizpean egiten da-eta.

Aurtengo bazkarirako honako menua prestatu dute: lehenengo paella, gero bakailaoa eta postrerako tarta eta izozkia egongo da. Edatekorik ere ez dute faltan izango, denetarik egongo da aukeran.

Txartelak ohiko lekuetan egongo dira salgai: Larrea eta Surpe tabernetan, eta Gaztetxean.



Eguerdiko 14:30ean izango da herri bazkaria.

PRESOEI ETA SENITARTEKOEI OMENALDIA EGINGO DIETE

Bazkalostean, urtero moduan, antolatzaileek, Amnistiaren Aldeko Batzordekoek, herriko presoei eta euren senitartekoei omenaldia egingo diete.

Aurten, gainera, beste preso bat

ere badago, Karmen Irizar. Izan ere, uztailaren 2an espetxeratu zuten Martutenen.

Beraz, domekan Karmenen eta Eltzikortaren senitartekoak omenduko dituzte. Aurrekua dantzatuko diete, eta baita origarri bat eman ere.

AURRESKURIK ONENA PLAZAN

Aiert Beobide Euskadiko aurreku txapeladuna izango dugu herriko plazan eguerdiko 12:30ean. Joan zen maiatzean jokatu zuten Irunen gipuzkoar erako XXI. Euskadiko aurreku txapelketa, eta bera izan zen garailea. Azkenengo lau urteetan bigarren geratu ondoren, azkenean, txapela eramatea lortu zuen Aiert donostiar gazteak. Aiert, baina, dantzari

osoa da; euskal dantzez gain, dantza garaikidea eta klasikoa ere egiten ditu. Edu Muruamendiaraz bergararraren Aukeran dantza taldean ere badihardu, *Sutargi* ikuskizunean.

Bestalde, Arratia aldeko trikitixaz gozatzeko aukera ere izango dugu eguerdian, Esther Korta eta Aitor Zamaio trikitilariekin.



Aiert, aurreku txapeladuna.

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Baserriko oilaskoak
Baserriko zekorrak

Kalebarren 1, **ANTZUOLA**
Tf. 943 76 64 34

Ondo pasau danok jaixetan!



Gabilondo-Arregi harategia

ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA

Kalebarren 14 ANTZUOLA Tf. 943 76 62 90



MATZ-ERREKA

Berotan estanpaturiko torlojugintza berezia

Plastiko eraldakuntza injekzio bidez

Ibarreta z/g 20577

Antzuola

Tf. 943 78 60 09

Faxa 943 78 70 34

INTERNET:

<http://matz-erreka.mcc.es>



Ate eta pertsianak zabaltzeko
automatismoen fabrikazioa

Doitasunezko
trokelak

TROKELAY, S.A.

Ebaketa
zehatza

ELAY INDUSTRIAL, S.A.
CELAY, S.A. de C.V.

ELAY Taldea

Zerbitzuak

ELAY, S.L.

Gainmoldaketa eta
Tratamenduak

SEYTRA, S.A.
CELAY, S.A. de C.V.

Ondo pasa ditzazuela Antzuolako jaiak!

GOIZPER

Transmisioak

- Enbrageak, balaztak eta balazta-enbrage mekaniko, neumatiko, elektromagnetiko eta hidraulikoak.
- Espeka globika, lau eta zilindrikadun etenak biragailuak. Espeka bereziak.

MATABI

Ihinztagailuak

- Nekazaritzan, lorategian, industrian eta etxean tratamendua egiteko ihinztagailu eta hautsezttagailuak.

FABRIKAZIOA:

GOIZPER

KOOP. ELK.

Antigua auzoa 4

20577 Antzuola (Gipuzkoa)

211 posta kutxatila

20570 Bergara

Tf. 943 78 60 00

Faxak 943 76 60 08

943 78 70 95

E-mail: goizper@goizper.com

<http://www.goizper.com>



Jose Luis Beitiak 44 urte dauzka eta 1972tik dabil adin muga bariko futbol txapelketia antolatzen, lehen Seminarioan eta oiñ Ipintzan. Ezkonduta dago, Iraia izeneko alaba daukate eta Donibane enpresan dihardu lanian.

Jose Luis Beitia

Futbola, ikusteko ala jokatzeko?

Ikusteko, jokalaria txarra naiz eta.

Ipintzako txapelketiak denbora asko kentzen dotsu?

Nahi baiño gehixago.

Zenbat lagun ari zarete antolaketan?

14 bat-edo.

Eta zenbat jokalaria daude?

650 inguru.

Ze izan nahi ziñuan txikittan?

Ez naiz akordatzen.

Ikasle ona ziñan?

Arrunta.

Lanbidez aldatzekotan, zer?

Gustora nago nabillen tokixan.

Denbora librian zer egitten dozu?

Musika entzun eta bideoarekin muntaiak egitten dittut.

Zelako musika gustatzen jatzu?

Euskal taldeia gehixen.

Egindako azken oparia?

Liburu batzuk emaztiari, amaren egunian.

Eta jasotako azkena?

Alabiak oparittu zostan CDa.

Bérgarako txoko bat?

San Martzial.

Astebukaerarako plan ideala?

Bizikletan ibilli pixkat eta, gabian, afal ostian, buelta bat emon.

Udan, hondartza ala pizina?

Hondartza.

Gustoko hondartza bat?

Zarauzkua.

Janari eta edari bat?

Babak eta arda beltza.

Sukaldari ona zara?

Ez.

Etxeko lanetan laguntzen dozu?

Oso gutxi.

Manixa bat?

Egunero siestia botatzia, 10 minutukua izan arren.

Kolore bat?

Berdia.

Urtaro bat?

Udaberrixa.

Zenbat ordu egitten dozu lo?

Gutxi, txapelketa sasoiari 6 bat.

Irratia ala telebista?

Telebista.

Programa bat?

Benetako gertakarietan oinarritutako pelikulak.

Zure bertute eta defektu bat?

Pronto oso txarra daukat. Bertutia, lagunei laguntzeko prest egoten naizela.

Oroitzapen on bat?

Nire ezkontzia eta alabiaren jaiotza.

Zer egingo dozu oporretan?

Kanpiñera jua, Saloura.

Zer eroango ziñuke uharte batera?

Ez nitzake juango!



MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1
943 76 72 73

Mizpildi 8
943 76 12 32

Ur-bide
I T U R G I N T Z A

Zubieta, 28-behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

POL-POL
Taberna

943 76 07 78

Bolu
liburutegia

Enmarkazioak
Ispiluak neurrira
Zurezko artikuluak
Bérgarako oleo eta
lumatoak

Koldo Eleizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60



Asteburuetan, batez ere, jende asko batzen da Lasai-Toki elkartearen.

Lasai-Tokik 25 urte

Hainbat ekitaldi antolatu dituzte elkartearen urteurrena ospatzeko

Mende laurden, 25 urte, beteko ditu laster Lasai-Toki elkarteak; uztailaren 24an, hain zuzen ere.

Urteurren hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte bertako bazkideek.

Datorren astean bertan hasiko dituzte ospakizunak, Koldo Lasaren sukaldaritza erakustaldiarekin.

Erreportaje honekin sorrerako eta gaurko hainbat kontu batu ditugu.

Etxe asko dago Matxiategin. Jende asko bizi da inguru horretan. Baita orain dela 25 urte ere. Auzoan, baina, taberna bakarra zegoen eta, denda gutxi batzuk besterik ez. Hori ikusita, «auzokoak batu eta elkarte bat egitea erabaki genuen», diosku Fernando Morenok, elkarteko presidentea. Bera izan zen horietako auzoko bat, eta bera izan zen, gainera, bultzatzaile nagusietakoa.

1975ean izan zen hori. Behin lokala aukeratu zutenean, Fernando eta Jose

Luis Moreno bere lehengusua planoak egiten hasi ziren. Beraz, hasieran ideia besterik ez zena itxura hartzen zihoan. Denborarekin, auzoko jende asko hasi zen elkartearen berri izaten, eta gero eta bazkide gehiago zeuden zerrendan. Gauzak horrela, laster hasiko zituzten elkarte egiteko lanak. Udalaren baimenik gabe, gainera. Izan ere, baimena eskatu arren, udalak eman aurretik hasi ziren lanean, eta horrek arazoren bat edo beste eragin zien. Hala ere, behin arazoak konponduta, aurrera jarraitu zuten lanekin.

GERO ETA BAZKIDE GEHIAGO

Hasiera hartan 106 lagunek eman zuten izena eta bazkide egin. Gaur egun, berri, 126 lagun dira Lasai-Tokiko bazkide, horietatik 8 emakume. Aipatzekoa da, gainera, hasieratik izan zutela bazkide izateko aukera bera gizonezko zein emakumezkoek. Horrela, oso jarri aurrerakoia erakutsi zuten; izan ere, garai hartan ez zegoen aukera hori ematen zuen elkarte asko. Dena dela, ez zen emakumerik aurkeztu. Denborarekin, baina, zortzi emakume egin dira bazkide, esan bezala.



☎ 943 76 20 61

BEHEKO TABERNA


Menestra eta untxia
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09



Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01

Gaur egun, bazkideak hartzeko sistema berezia dute. Izan ere, 55 urteko gorakoak ohorezko bazkide izendatzen dituzte, eta kuota erdia ordaintzen dute. Era berean, euren ordean, senitarrekoren bat bazkide sartzeko aukera dago. Morenoren esanetan, gainera, «laster muga bat jarri beharko dugu, gero eta bazkide gehiago gara-eta».

URA ELKARTEAREN ETSAI

Elkartea ireki zutenetik, lau urtean behin uholdeak izan dituzte. Errekaren kontran dago, eta ur handiak daudenean, pare horretan gainez egiten du lehenengo errekak. Hori dela eta, arazo handiak izan dituzte. Lehendabizikoa 1977ko San Antonio egunean izan zuten. Azkena, berriz, 1992an. Beraz, azkenaldian, nahiko zorte ona izan dute.

UZTAILEKO EKITALDIAK

Uztailaren 11n, afaria eskainiko diete Bergarako elkarte guztiei. Koldo Lasaren erakustaldia ere egongo da. Uztailaren 24an, urtero egiten dute afaria,



1983ko abuztuko uholdeetan arazo handiak izan zituzten Lasai-Tokikoek.

B.U.A. ROMAN LARRAÑAGA FONDOA

eta aurten ere, nola ez, afari berezia egingo dute. Hainbat opari ere egingo diete bazkideei. Bestalde, Lasai-Toki izena daraman ardoa jarri dute salgai,

baina ez bazkideendako bakarrik. Nahi duen guztiak dauka ardoa eskura Lasai-Toki elkartean bertan. Irailean eta urrian ere hainbat ekitaldi egongo da.<



Fernando Moreno. Lasai-Tokiko lehen presidentea

«Omentzearren aukeratu naute presidente»

Zeu izan zinen elkarteko lehen presidentea. Orain, berriro aukeratu zaituzte.

Bai; jende asko ibili ginen lanean elkartea sortzeko, eta neu izan nintzen bultzatzaileetako bat. Horregatik aukeratu ninduten garai hartan presidente. Orain, berriz, nik uste dut omenalditxo bat egin nahi izan didatela, urteurrena ospatzen dugun urtean neu aukeratuta.

Zela aldatu da elkartea urte hauetan guztietan?

Lehen, jendea egunero etortzen zen, baita astegunetan ere. Orain, asteburuetan jende asko egoten da afaltzen edo kartetan joketzen, baina astean zehar oso jende gutxi egoten da.

Anekdotaren bat gogoratzen duzu?

Bai horixe. Elkartea sortu genuenean, Zubi-Ondo izena jartzea pentsatu genuen. Baina, ez ziguten izen hori jartzen utzi, bazegoelako Zubi-Ondo izeneko beste elkarte bat. Ordurako, Zubi-Ondo izena eramango zuten leihoak egitea enkargatuta geneukan; beraz, antzerako beste izen bat pentsatu behar izan genuen, leiho horiek aprobetxatzeko. Kontua zen elkartearen izenak bi hitz izan behar zituela, marratxo bat tartean, eta guztira lau silaba. Horrela, Lasai-Toki izena proposatu zuen auzoko batek eta horixe aukeratu genuen.

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

Asier Garitano bergararra 2.B mailara Alicante taldearekin

Asier Garitano futbolari bergararrak (31 urte) denboraldi borobila egin du hirugarren mailako Alicante taldean. 2.B mailarako igoera lortu du taldeak, eta Asier igoera faseko golegile nagusia izan da.

Burgosen hiru denboraldi jokatu eta gero, Asier Garitanok hirugarren mailako Alicante taldearekin fitxatu zuen joan zen urtean. Dani Barroso taldeko idazkari teknikoak lehendik ezagutzen zuen Asier, eta bergararrak ez zuen bi aldiz pentsatu, berriz ere maletak egiteko orduan. Gauzak primeran joan zaizkio Jose Bordalasek entrenatzen duen taldean. Ligan bi partidu besterik ez dituzte galdu, eta igoera fasean Lorca, Vilafranca eta Europa taldeak gainditu dituzte. Gainera, Asier igoera faseko golegile nagusia izan da, lau golekin. Ligan beste 12 gol egin ditu erdilari bergararrak.

Asier oso pozik dago egindako denboraldiarekin eta Alacanten izandako esperientziarekin: «taldea oso ondo antolatuta dago, eta alde horretatik sorpresa atsegina hartu dut. Klubak 140 milioi pezetako aurrekontua dauka, eta modu



Asier Garitanok lau gol egin ditu igoera fasean.

LAS PROVINCIAS

profesionalean lan egiten da. Hirugarren mailan jokatzeke nengoen, baina ez dut uste atzerapausoa izan denik. 2. B mailara igotzea lortu dugu, eta oso gustura egon gara neska eta biok Alacanten. Playa San Juanen bizi gara eta euskaldun asko dago han». Datorren urtean,

bertan jarraituko du: «hainbat fitxaketa egingo ditu taldeak, tartean Estefano, Realen eta Eibarren ibilitakoa, eta helburua mailari eustea izango da».

IBILBIDE LUZEA

Asierrek ibilbide luzea egin du futboleant. Bilbao Athle-

tic, Eibar, Cartagena, Cadiz, Gava, Ferrol eta Burgos taldeetan jokatu du aurretik, eta oraingoz ez dauka erretiratzeko asmorik: «futbolari bizimodua oso ona da, eta gustatuko litzaidake erretiratutakoan futbolarerik zerikusia duen zerbaitean jarraitzea».

Uztailaren 18an denboraldia gertatzeari ekingo diote, eta bien bitartean, Asier, Ipintzako beteranoen futbol txapelketan ari da jokatzen lagunekin batera.

«Taldearen aurrekontua 3. mailan, 140 milioi pezetako izan da. Modu profesionalean lan egiten da»

U
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKA

FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA


Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

Masterreka 19, behea. 943 76 46 53.

Ametz

TXINAKO MEDIKUNTZA TRADIZIONALA
Shirley Garcia, akupuntore profesionala, 781 zkia.
Antsietatea, stressa, tabakoa, depresioak, gizentasuna

Tratamendu pertsonalizatuak eta ondoriogabeak.



Saturrarán-Deba trabesia domekan

Beti-Busti Kirol Elkartek antolatuta, domekan, uztaillaren 8an, Saturrarán-Deba VIII. Kayak ibilaldia egingo dute. Irteera goizeko 10:30ean egingo da Saturrarán hondartzatik, eta partaideek 3 miliako (5,5 kilometro) ibilbidea bete beharko dute.

Beti-Busti taldeak piragua zale guztiei proban parte hartzeko deia luzatu nahi die. Saturrarán-Deba trabesia Beti-Bustik antolatzen

duen probarik arrakastatsuenetakoa da. Joan zen urteko edizioan 50 partaide inguru izan ziren. Izen ematea doanekoa da, eta Saturrarán hondartzan egin beharko da domekan bertan, 9:30etik aurrera, edo aldeztatik Beti-Bustiko ki-deei deituz. Argibideak 609 98 00 10 edo 656 72 04 31 telefono zenbakietan jaso daitezke. Domekan, probaren ostean, partaide guzti-entzat luntxa izango da.



Partaideek 5,5 kilometroko ibilbidea bete beharko dute.

“Quebrantahuesos” jendetsua

Alberto Elorza izan zen Bergarako onena ekainaren 23an Sabiñanigon jokaturako “Quebrantahuesos” zikloturista proban. 4.558 lagun izan ziren irteeran, eta 205 kilometroko ibilbidea bete behar izan zuten, tartean Somport, Marie Blanque, Portalet eta Hoz mendateak igoz. Herriko 22 lagunek amaitu zuten proba. Antolatzaileek Chiapucci txirrindulari ohia omendu zuten.

Bergararren sailkapena

24. Alberto Elorza	6:10:00	2.042. Juan Migel Fernandez	8:03:00
248. Iñigo Igartua	6:43:00	2.322. Jose Ignacio Aranburu	8:16:00
337. Felix Igarza	6:48:00	2.503. Joxe Mari Aranzabal	8:25:00
488. Juan Mari Olabarria	6:59:00	2.587. Jose Mari Jauregi	8:29:00
859. Arkaitz Ruiz de Loizaga	7:17:00	2.588. Juan Luis Arregi	8:29:00
979. Iñaki Gabilondo	7:23:00	3.098. Iker Etxebarria	8:54:00
1.333. Garikoitz Arregi	7:38:00	3.174. Martin Sanchez	8:58:00
1.406. Oscar Ortiz	7:40:00	3.329. Esteban Lazkano	9:07:00
1.672. Gorka Arrieta	7:50:00	3.492. Juan Ramon Irizar	9:17:00
1.716. Jose Jabier Zabaleta	7:51:00	3.493. Benigno Menor	9:17:00
1.817. Jesus Sanz	7:55:00	4.085. Martin Cantero	10:17:00

Frontenis finala zapatuan

Zapatuan, hilak 7, frontenis txapelketaren finala jokatu da Angiozarko Arbiaska pilotalekuan, 12:00etan. Alejo Garcia eta Carmelo Barcala bergararrek, Jose Izquierdo eta Candido Hurtado arrasatearren aurka jokatu dute. Aurretik, 11:00etan, 3. eta 4. posturako partiduak jokatu dute.

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



ANCEPEK homologatutako diploma

Ile apaintze eta estetika zentruak
Kalitatezko irakaskuntza

MATRIKULA ZABALIK

DAMKAR'T

Eibar. 943 12 15 18

Agirrebeña

GAZTETXEA



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga z/g
OÑATI
943 78 24 13

IPINTZAKO futbol txapelketa



Arloteak alebin mailako txapeldun

Arloteak taldeak alebin mailako txapeldunak ditugu. Finalean 4-0 irabazi zioten Soraluze taldeari. Ligan ere euren nagusitasuna azaldu dute eta ez dute gol bakar bat ere jaso jokaturako partidu guztietan. Bestalde, alebin mailako 3. eta 4. posturako partiduan, San Martin 2-1 nagusitu zitzaion Lotsagabeak taldeari. Datoren egubakoitzean, hilak 13, kadete mailako finala jokatu dute Eibartarrak eta Fashion Fashion taldeek, 18:30ean, eta jarraian senior nesken finala izango da Ipintzan. Aurretik, eguaztenean, seniorren finalerdiak jokatu dituzte. Ogizun eta Arloteak dira talderik indartsuenak orain arte ikusitakoaren arabera. Bestalde, gizonetako txapelketei dagokionez, nagusietan aste honetan bertan jokatu dituzte ligako azken partiduak, eta astelehenean eta martitzenean final-laurdenak izango dira. Beteranoetan, azkenik, eguenean, hilak 12, finalerdiak izango dira 19:30ean eta 20:30ean.

azken emaitzak

NAGUSIAK

Bildurbarek Opel Lam-Killer's	2-0
Los Pepinos-Osintxu	1-5
Altos Pornos-Torrekua	1-1
Drink Team-Lacor Arloteak	1-3
La Juve-Tojhu	0-7

BETERANOAK

Angiozar-Bildurbarek	6-0
Ezinleike-Bar Canalejas	4-3
Guipuzcoana-Arloteak	6-1
A Ze Flaxa-Amilotx	3-2
A Ze Flaxa-Canalejas	13-2

NESKAK

Ou Pitxu Ou-Arranua	4-0
Potzu ta Zapaburuak-Pentol's Team	9-2
Eibartarrak-Jo ta ke	8-0
Fashion Fashion-Elgeta	1-1
Arloteak-Soraluze	4-0
San Martin-Lotsagabeak	2-1

partiduak

NAGUSIAK

Astelehena 9

19:15: Bildurbarek-A Ze Flaxa (finalaurdena)
20:30: Arloteak-Osintxu (finalaurdena)

Martitzena 10

19:15: Mongatxurrak-Altos Pornos (finalaurdena)
20:30: Angiozar-Fo Fo Fo (finalaurdena)

Eguaztena 11

19:30: Senior nesken partidua (finalerdia)
20:30: Senior nesken partidua (finalerdia)

BETERANOAK

Eguena 12

19:30: Angiozar-Guipuzcoana edo Amilotx (finalerdia)
20:30: A Ze Flaxa-Bildurbarek Opel Lam (finalerdia)

NESKAK

Egubakoitza 13

18:30: Eibartarrak-Fashion Fashion (finala)
19:45: Senior mailako finala

sailkapenak

A multzoa

	P	J	GA	GK
1. Bildurbarek Opel Lam	12	5	13	3
2. Altos Pornos	10	5	7	4
3. Tojhu	9	5	14	4
4. Torrekua	7	5	8	11
5. Killer's	4	5	7	12
6. La Juve	1	5	8	23

B multzoa

	P	J	GA	GK
1. Osintxu	12	4	19	3
2. Fo Fo Fo	7	4	21	9
3. Txokokuak	7	4	10	5
4. Los Pepinos	3	4	3	18
5. Getokuak	0	4	3	21

C multzoa

	P	J	GA	GK
1. Mongatxurrak	12	4	14	2
2. A Ze Flaxa	7	4	10	3
3. Gore	5	4	6	6
4. Game Over	3	4	5	18
5. Mongitxurrak	1	4	4	10

D multzoa

	P	J	GA	GK
1. Angiozar	10	4	13	2
2. Arloteak	9	4	11	3
3. Down	5	4	5	7
4. Matxakategi	4	4	6	6
5. Drink Team	0	4	2	19

Beteranoak

	P	J	GA	GK
1. Angiozar	18	6	43	11
2. A Ze Flaxa	15	7	37	22
3. Bildurbarek	11	6	30	19
4. Guipuzcoana	8	6	24	21
5. Amilotx	7	6	14	31
6. Ezinleike	6	6	18	26
7. Bar Canalejas	4	7	16	40
8. Arloteak	2	6	16	48

Neskek, seniorrak

	P	J	GA	GK
1. Ogizun	15	5	35	3
2. Arloteak	15	5	27	4
3. Potzu ta Zapaburuak	10	6	24	11
4. Lai Lai Lai	7	5	19	11
5. Pentol's Team	6	6	15	26
6. Ou Pitxu Ou	3	5	6	31
7. Arranua	0	6	2	42

Neskek, kadeteak

	P	J	GA	GK
1. Eibartarrak	15	5	38	3
2. Fashion Fashion	10	5	16	10
3. Txotx	9	5	23	13
4. Elgeta	7	5	10	14
5. Jo ta Ke	3	5	3	11
6. Mariaren Lagundia	0	5	3	42

Neskek, alebinak

	P	J	GA	GK
1. Arloteak	12	4	53	0
2. Soraluze	9	4	43	12
3. Lotsagabeak	6	4	10	15
4. San Martin	3	4	4	46



MIGUEL ANGEL EIKOROBEBEZIBAR

bonofotoa

Zein arbola mota da
Ibargarain dagoen hau?

galde debalde

1. Zein esanahirekin lotuko
zenuke *kurruxkia* bergarar
berba?


- A- Ile kizkurra
- B- Errekatxoa
- C- Txerriaren hots zorrotza

2. Zein izen jarri nahi izan
zioten, hasiera batean, Lasai-
Toki elkarteari?

- A- Lasai-Txoko
- B- Zubi-Ondo
- C- Ibai-Ondo

3. Non izango da The Big
Jamboree taldearen jazz ema-
naldia datorren eguenean?

- A- Espoloian
- B- Komenio kalean
- C- Ipintza futbol zelaian



Aurreko aleko saria **Dolores Iñarrarentzat** izan da:
5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Doloresi!

Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Azkatsu azpikoa**
Galde Debalde: **1-C, 2-A, 3-C**

Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa
zozketatuko du **BERRIGARAK** asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: . 2: . 3:

Izen-deiturak:

Telefonoa:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Tarradellas pizzak
Askotariko pizzak

369 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Domekan, boxeo saioa San Martin plazan Pikor Teatro talde arabarrarekin

San Martin plazan boxeo ikusteko aukera izango dugu domekan, 19:00etan. Pikor Teatrotik K.O. antzezlanaren ekarriko du herrira. Nahi duenak 'El Gallo Panama' txapelduaren aurka aritzeko aukera izango du, eta ondo boxeatzeko gero, txeke potoloa eskuratzeko aukera izango du.

Horixe aurkituko dute domekan, 19:00etan, San Martin plazara hurbiltzen diren guztiek. Promotore ezagun bat talentu berrien bila dabil, eta horretara etorriko da Bergarara. Aldizkari ezagun batek babestutako boxeo saioa izango da eta nahi duenak aukera izango du 'El Gallo Panama' txapelduaren aurka boxeatzeko. Borrokak bi round izango



Argazkian, Pikor Teatrotik hiru aktoreak eta haien laguntzailea.

ditu, eta boxeoak dituen arauak errespetatu beharko dira.

'El Gallo Panama' txapelduaz gain, Paz Mendietatik 'Mano Tenazas' emakumezkoen boxeoan goi mailara iritsiko den boxeolariaren aurkezpena ere izango da domekan, emakumezko-

ek ere jarduten dute-eta boxeoan.

IKUSLEAK MUTURREKOKA

Borrokaldian esku hartuko duen ikusleak, aurkariarekin muturrekoka ibiltzeaz gain, bestelako froga batzuk ere izango ditu. Guztiak gaintuz gero, borrokaldia

barne, txeke ederra eskuratzeko aukera izango du. Eta hasieran aipatutako promotore ezagunak boxeoan arrakasta izatera lagun diezaioke gailentzen den ikusle ausartari. Dena dela, ringera igo aurretik, 'El Gallo Panama' boxeo izarra dela gogoratu!

Horretaz guztiaz domekan gozatu ahal izango dugu, Pikor Teatrotik eskutik. Ordubetea, umore giroan, kirol polemiko horren bihotzean sartuko dira taldeko hiru aktoreak. Hala, boxeo eskularruak, umorea eta ikusleen esku hartzea dira 'K.O.' antzezlanaren ardatz nagusi.

Hiru aktoreak Txeles Argulo, Pablo Molinero eta Fermin Sanles gasteiztarrak dira, eta obraren zuzendaria Miguel Olmeda da.

The Big Jamboree katalanak datorren egueneko jazz saioan

Uztailko bigarren jazz emanaldia datorren eguenean, hilak 12, egingo da Espoioan, 22:00etan. Rhythm'n blues, jump'n eta rock-and-rolla uztartzen dituen The Big Jamboree talde katalana izango da gure artean.

40ko eta 50eko hamarkadetako doinuetan oinarritzen dira, batez ere. Konpo-

saketa propioez gain, garai hartako oso musikari ezagunen bertsiak egiten dituzte, Louis Prima, Louis Jordan, Roy Brown edo Joe Turner, esaterako. Bestalde, bi hamarkada haietan egiten zen moduan, egiten duten musika grazia bereziarekin interpretatzen dute. Hortik dator taldearen ize-

na: The Big Jamboree (Jai handia).

Duela gutxi diskoa grabatu dute eta uztailan kaleratzeko asmoa dute. Taldea zortzi musikaririk osatzen dute: Ignasi Poch, saxo altua; Dani Perez, saxo tenorra; Cesc Miro, tronpeta; Manolo Casado, gitarra; Juan Ramon Vega, kontrabaxua; Marc

Ferrer, pianoa; Emilio Torres, bateria; eta Mike G. Garro, ahotsa.

The Big Jamboree taldearen emanaldiak 90-120 minutu inguru iraungo du. Eta esan bezala, kantu propioez gain, oso doinu ezagunak entzuteko aukera izango da datorren eguen gauean Espoioan.

PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA



Amilotx taldea, 1987

Gaur, egubakoitza, Jose Antonio Kortabarría "Moztu" zenari omenaldia egingo diote Ipintzan, 19:30ean. "Moztu" oso ezaguna genuen herrian eta Amilotxeko lagunek futbol partidu batekin omendu nahi izan dute. Izan ere, Amilotx futbol taldearen bultzatzaile nagusietakoa zen "Moztu". Futboleko jokatu ez arren, taldeko jarraitzaile amorratua zen, eta lan aipagarria egiten zuen urtero taldeak han edo hemengo txapelketetan parte hartzeko.


Goiko argazkia 1987 urtekoa omen da. Amilotxek Eskoriatzako afizionatuen txapelketan parte hartzeko ohitura zeukan eta urte hartan finalera heldu ziren. Argazkia finalaren atarian ateratakoa da. Amilotxek Musakolako taldearen kontra galdu zuen finala. Partidua berdinketarekin amaitu zen, baina luzapenean arrasatearrak nagusitu ziren, 5-4. Argazkian agertzen direnak hauek dira, ezkerretik eskumara:

Zutik: Alex Madariaga, Santos Gorria "Nitxi", Andoni Azula, Isaak Lazkano, Ma-

riano Jauregi, Txema Lazkano, Angel Mari Ruiz de Larramendi, Felix Saez de Maturana, Jose Jabier Agirre, "Piti" Unamuno eta Roberto Zurro.

Makurtuta: Iñaki Larrañaga "Txopu", Luis Garitano, Rafa Dovao, Jose Luis Dovao, Nerea Dovao (neskatila); Juan Jesus Alberdi, Ignacio Dovao (mutikoa), Gorka Igartua, Felix Barrocal eta Jose Antonio Kortabarría "Moztu".

Argazkia: Ibon Agirre



**Manufacturas
LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikuluak
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.
Tf. / faxa 943 76 59 53.



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59

BILTOKI
ASPIZA S.L.

Elektrikako tresnak	Barrenkalea, 6	Tel.: 943 76 25 96
Opariak	Barrenkalea, 12	Tel.: 943 76 04 72
Dekorazioa	San Martin plaza	Tel.: 943 76 43 51
Sukaldeak eta bainuak	San Pedro plaza	Tel.: 943 76 34 00

1955. urtean sortua 46 urte herriaren zerbitzura

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA



MAYA

Oinetakoak Arropak Zilarra

Irala kalea z/g

ZAPATU ARRATSALDEZ ZABALIK

Beherapenak
%

30

eraino



TXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAN

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




RKUZ
ALTZARIAN

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RKUZ
ELEKTRAGAILUAN

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 



RKUZ
SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik